



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TXOSTENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA JABETZA ETA MERKATARITZAKO ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOAREN ARTEKO ZERGA- ARLOKO LANKIDETZA-HITZARMENARI BURUZKOA

52-SUST-2017 LEA/AVC proiektua

Aurkibidea:

I. Xedea.....	1
II. Merkatuko lehia eta Jabetza eta Merkataritza Erregistroek zerga- kudeaketan parte hartzea.....	3
1. Zergak aplikatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten Bizkaiko hipoteka- barrutiko likidazio-bulegoak	3
2. Erregistratzaileen lege-betebeharra, foru-ogasunari lankidetzeta eta informazioa eskaintzeko	10
III. Ondorioak.....	13

Osoko bilkura

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Alvarez, bokala

Idazkaria: María Lourdes Muñoa Corral andrea

Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean, LEA) osoko bilkurak, 2017ko abenduaren 18ko bileran, goian adierazitako osauerarekin, erabaki du txosten hau ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren eta Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren arteko zerga-arloko lankidetzeta-hitzarmenaren inguruan.

I. Xedea

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak (foru-ogasunak) lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetua du Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoarekin, zerga arloan lankidetzan aritzeko esparru



orokor bat ezartzen duena¹. Zehazki, aldeek jarduteko baldintzak ezarri dituzte, Bizkaiko Hipoteka-barrutiko Likidazio-bulegoek (likidazio-bulegoek) oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kudeaketa, likidazioa eta borondatezko bilketa egin ditzaten. Gainera, geroko kudeaketa-gomendio bati dagozkio, likidazio-bulegoek zerga horiek aplikatzeko egintzak –araudiz ez dagokien arren– gauzatzeari dagokionez. Azkenik, Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen lege-betekizuna gauzatzeko baldintzak ezarri dituzte, funtzionario publiko diren aldetik; foru-ogasunarekin lankidetzan arituko dira eta informazioa emango diote zergak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko egintzetan².

2. Txosten honetan aztertuko da foru-ogasunak lehia askeari izkin egin dion, lankidetzaren bitartez likidazio-bulegoei esleitu baitie oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kudeaketa, likidazioa eta borondatezko bilketa. Halaber, aztertuko da erregistroen eta foru-ogasunaren arteko lankidetzari buruzko hitzarmeneko klausuletatik ondorioztatu daitekeen erregistratzaileek emandako zerbitzuak merkatuko enpresek eskaini ditzaketela.

¹ Aipatutako lankidetzaren hitzarmena 2007ko martxoaren 9an izenpetu zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak eta Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoko dekanatu autonomikoak. 2007ko lankidetzaren aurrekari da alde biek 1993ko otsailaren 17an izenpetu zutena, eta, 2007ko hitzarmeneko zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, aurrekari horrek Bizkaiko hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoak zerga-kudeaketan jarduteko baldintzak bakarrik ezartzen zituen.

² Lankidetzaren hitzarmenak 19 klausula ditu: lehena, Xedea; bigarrena, Foru-ogasunari erregistroko datuen informazioa ematea; hirugarrena, Jabetza eta merkataritzako erregistratzaileak lankidetzan aritzea Bizkaiko Foru Ogasunarekin zerga-kudeaketan; laugarrena, Identifikazio fiskaleko zenbakia Merkataritza Erregistroaren bitartez esleitzeko prozedura; bosgarrena, Erakundearen aurkibidean behin-behineko baja eta berriz ere alta emateko erabakiak Merkataritza Erregistroari jakinarazteko prozedura; seigarrena, Bizkaiko Merkataritza Erregistroak ziurtagiriak ematea, Bizkaibairen ondoretarako; zazpigarrena, Foru-ogasunak egindako bahiketak eta idazkunak eragin ditzaketan beste elementu batzuk Jabetza eta Merkataritza Erregistroei bide telematikoz jakinarazteko prozedura; zortzigarrena, Erregistratzaileek irizpenak eta txostenak egitea Foru-ogasunarentzat; bederatzigarrena, Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioa egitea hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoek; hamargarrena, Hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoen funtzioak; hamaikagarrena, Beste espediente batzuetako kudeaketa-gomendioak; hamabigarrena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak; hamahirugarrena, Informatika, langileak eta lokalak; hamalaugarrena, Jarraipen- eta kalitate-irizpideak; hamabosgarrena, Konpentsazio ekonomikoa; hamaseigarrena, Erantzukizun-araubidea; hamazazpigarrena, Hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoen koordinatzailea; hemezortzigarrena, Jarraipen Batzordea; eta hemeretzigarrena, Indarraldia eta xedapen iragankorrak.



3. Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA/AVC) buruzko 1/2012 Legeak 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko eman dizkion eskumenek hala baimenduta egin dugu txosten hau³. Hala, euskal merkatuetan egiazko lehia sustatu nahi da ekintza ez-zehatzaileen bidez. Halaber, LEA/AVC-k merkatuetan lehia mantentzeko helburua duten herri-administrazioei proposamenak egiteko duen eskumena baliatuz eman da (erakunde horren legearen 3.3.d artikulua).

II. Merkatuko lehia eta Jabetza eta Merkataritza Erregistroek zerga-kudeaketan parte hartzea

4. Lankidetzaz hitzarmenak lehiari dituen ondorioak aztertzeko, bi ikuspegi erabiliko dira. 1) Jabetza Erregistroak, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kudeaketaz eta likidazioaz arduratutako likidazio-bulego diren aldetik, eta 2) Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileak, foru-ogasunarekin lankidetzan aritzeko eta hari informazioa emateko lege-betekizuna dutenak, Bizkaiko lurralde historikoan zergak aplikatzeko egintzak gauzatzeko.

1. Zergak aplikatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten Bizkaiko hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoak

5. Foru-ogasunari dagokio zerga itunduak aplikatzeko eskumen eksklusibo Bizkaiko lurralde historikoan, eta zergen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskaritza egiteko ahalak gauzatu dituzten eskumen hori dela medio. Foru-ogasuna bera arduratu behar da ahal horiek gauzatzeko, bere zerbitzura diharduten funtzionario publikoen eta langileen bitartez⁴.

³ EAEko 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (EHAA, 29. zk., 2012ko otsailaren 9koa).

⁴ 112/2009 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketako Araudia onetsi duena. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 144. zk., 2009ko uztailaren 30ekoa). 3. artikulua arabera, zergak kudeatzeko jardueretan eta prozeduretan gauza daitezkeen ahalak jardueretan eta prozedurotan esku hartzen duen zerga-administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioei eta gainerako langileei dagozkie.

215/2005 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketako Araudia onetsi duena. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 249. zk., 2005eko abenduaren 31koa). 2. artikulua arabera, foru-administrazioaren zergen eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideen bilketaz arduratuko da Ogasun eta Finantza Saila, egin behar hori esleitua duten organoen bitartez.

Uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretua, zerga-ikuskaritza eta kudeaketa-prozedura eta jardueren eta zergen aplikaziorako prozeduren arau komunaren garapenerako Arautegi Orokorra



Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kasuan, zergen kudeaketa, likidazioa eta borondatezko epearen barneko bilketa egiteko ahalak organo espezifikoaren eta jabetza-erregistratzaile bat buru duten likidazio-bulegoen bitartez gauzatzen dira.

6. Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileak modu profesionalean diharduten funtzionario publikoak dira, eta beren ardurapean gauzatu behar dituzte, oro har, legeek eta, batik bat, hipoteka- eta merkataritza-araudiak ezarritako erregistro-funtzio publikoak⁵.

Auzitegi Gorenak, jabetza-erregistratzaileei dagokienez, honakoa ezarri du erregistro-funtzioak gauzatzeari buruz⁶:

«(...) Jabetza Erregistroa, formalki, Estatuaren administrazio-antolaketaren barnean dagoen organismo administratibo bat da, erregistro-prozedurak berezitasunak izan arren. Era berean, Erregistroko titularrak funtzionario-izaera erabatekoa izan behar duenik zehazten ez bada ere, ezin daiteke haren jarduera jarduera pribatutzat hartu. Horrenbestez, haren egintzak, organismo administratibo baten titular den aldetik, lege-mailako arau batean ezarritakoaren arabera lotesleak badira, titular den administrazio-organoa ere lotuta geratuko da, jabetza-erregistratzaileek funtzio publikoa betetzen dutelako, ez beren izenean egindako funtzio pribatu bat (...)».

Erregistro-funtzio publikoak egiteaz gain, jabetza-erregistratzaileak, funtzionario publiko diren aldetik, erregistro-barrutian zehaztutako hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoen titular dira⁷.

onesten duena. BOE, 213. zk., 2007ko irailaren 5ekoa. Estatuko administrazioarentzat, araubide horren 61. artikulua arabera, zergak aplikatzeko jardueretan eta prozeduretan gauza daitezkeen ahalak jardueretan eta prozedurotan esku hartzen duen zerga-administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioei eta gainerako langileei dagozkie.

⁵ Ikus 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren 274. artikulua, Hipoteka Legearen testu ofizial berria onesten duena. (BOE, 58. zk., 1946ko otsailaren 27koa). Bertsio bateratua eskura, hemen: <https://www.boe.es/buscar/pdf/1946/BOE-A-1946-2453-consolidado.pdf>.

Ikus Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuaren 13. artikulua. (BOE, 184. zk., 1996ko uztailaren 31koa). Hemen eskura: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1996-17533&p=20170304&tn=6>.

Ikus 1947ko otsailaren 14ko Dekretuaren 536. artikulua, Hipoteka Erregistroa onartzekoa. (BOE, 106. zk., 1947ko apirilaren 16koa). Hemen eskura: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1947-3843>.

⁶ Auzitegi Gorenaren 1407/2000 Epaia, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 2000ko otsailaren 24koa. ECLI: ES:TS:2000:1407.

⁷ Ikus Hipoteka Erregistroaren Erregelamenduko 536. artikulua.



Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salak, 1999ko apirilaren 17ko 2565/1999 Epaia hirugarren zuzenbide-oinarrian, honela zehazten ditu Jabetza Erregistroetako Likidazio Bulegoak⁸:

«(.....) **Administrazioaren organoak, zuzenbide publikoaren mendekoak, funtzionario izaera duten edo izaera hori legez esleitu zaaien pertsonak eskaintzen dituztenak**, eta zergak biltzeko egiteko eskusiboa edo nagusia dutenak (...)

7. Jabetza Erregistroak 1861. urtean sortu ziren eta orduz geroztik erregistroan inskribatu beharreko tituluei dagozkien zerga-funtzioez arduratzen dira⁹.

Gaur egunean, autonomia-erkidegoko foru-lurraldeetan, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak beren zerga-organo espezifikoen bitartez egiten dute zergon likidazioa eta bilketa, hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoak aintzat hartu gabe¹⁰. Kontrara, Bizkaiko Foru Aldundiak bere organo espezifikoen eta likidazio-bulegoen bitartez gauzatzen ditu zerga-kudeaketako ahal horiek.

Autonomia-erkidego gehienetan, Balearretan eta Nafarroako Foru Komunitatean izan ezik, zerga horien kudeaketa eta likidazioa egiteko aintzat hartzen dira likidazio-bulegoak¹¹.

⁸ Auzitegi Gorenaren 2565/1999 Epaia, 1999ko apirilaren 17koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala. ECLI: ES:TS:1999:2565.

⁹ Jabetza Erregistroak 1861eko otsailaren 8ko Hipoteka Legearen bitartez sortu ziren. Ordura arte Hipoteka Zuzenbidea zeritzonaren kudeaketa lege berrira egokitzeko, 1861eko azaroaren 2ko Errege Dekretu baten bidez ezarri zen haren likidazioa Ogasun Administrazioen kargura egongo zela probintzia-hiriburuetan, eta jabetza-erregistratzaileen kargura, aldiz, erregistrook kokatuta zeuden gainerako puntuetan.

¹⁰ Arabako Lurralde Historikoa: martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa (Arabako Aldizkari Ofiziala, 43. zk., 2003ko apirilaren 11koa); maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa. (Arabako Aldizkari Ofiziala, 60. zk., 2005eko maiatzaren 27koa).

Gipuzkoako Lurralde Historikoa: urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Araua, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 15. zk., 1990eko urtarrilaren 22koa); urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretua, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoa. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 209. zk., 2012ko azaroaren 2koa); martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa onartzekoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 65. zk., 2011ko apirilaren 5koa).

¹¹ Nafarroako Foru Komunitateak ez zuen berriro lankidetzaren hitzarmena Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoarekin 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarri zezan.

Bestalde, Balearretako autonomia-erkidegoak Jabetza eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmena salatu zuen, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin.



8. Bizkaiko zerga-araudiak likidazio-bulegoei esleitu dizkie oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kudeaketa, likidazioa eta borondatezko epearen barneko bilketa egiteko ahalak¹².

9. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga arautzen duen Foru Arauaren 65. artikulua araber, horien zerga-kudeaketa foru-ogasunaren organo eskudunaren –organo hori likidazio-bulego zentralizat joko da– eta likidazio-bulegoen bitartez egingo da.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren Foru Araua garatuz, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuaren 23. artikulua araber, likidazio-bulegoei dagokie zergen kudeaketa, likidazioa eta borondatezko epearen barneko bilketa egiteko eskumena, honakoei dagokienez:

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga lagata daukaten autonomia-erkidegoak: Kataluniako Autonomia Erkidegoa: Ebazpena, 2009ko abenduaren 21ekoa, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako Antolaketa, Plangintza eta Harreman Instituzionalen Sailarena, Kataluniako Zerga Agentziarekin egindako lankidetzaz hitzarmena argitaratzekoa. Horren bidez, zerga-leihatila bakarra eta zerga-arloko izapide jakin batzuk ezartzen dira (BOE, 4. zk., 2010eko urtarrilaren 5ekoa). Andaluziako Autonomia Erkidegoa: Ebazpena, 2017ko otsailaren 17koa, Andaluziako Ogasun Agentziarena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Andaluziako Jabetza Erregistratzaileen artean izenpetutako lankidetzaz hitzarmenaren eranskina argitaratzekoa. Horren bidez ezartzen dira zein baldintzatan beteko dituzten hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoek –Andaluziako Juntaren lurralde-esparruko jabetzako-erregistratzaileen kargura daude– maiatzaren 4ko 106/1999 Dekretuak esleitutako funtzioak (Andaluziako Juntaren Aldizkari Ofiziala, 36. zk., 2017ko otsailaren 22koa). Galiziako Autonomia Erkidegoa: Agindua, 2012ko abenduaren 19koa, jabetza-erregistratzaileen kargura dauden hipoteka-barrutiko bulego jakin batzuei zenbait funtzio agintzen dizkiena, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren zehapen-ahala aplikatzeari, berrikusteari edo gauzatzeari dagokionez (Galiziako Aldizkari Ofiziala, 245. zk., 2012ko abenduaren 26koa); Kanarietako Autonomia Erkidegoa: 20/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, jabetza-erregistratzaileen kargura dauden likidazio-bulegoei agintzen diena Kanarietako autonomia-erkidegoak kudeatutako zergak aplikatzeari dagozkion funtzio administratiboak gauza ditzatela, eta 12/2004 Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Erregelamendu Organikoa aldatzen duena (Kanarietako Aldizkari Ofiziala, 57. zk., 2005eko martxoaren 21ekoa).

¹² 4/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 62. zk., 2015eko apirilaren 1ekoa).

58/2015 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duena. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 78. zk., 2015eko apirilaren 27koa).

63/2011 Foru Dekretua, martxoaren 29koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudia onartzekoa. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 63. zk., 2011ko martxoaren 31koa).



- a) Kasuan kasuko hipoteka-barrutian emandako edo izenpetutako dokumentuak edo egintzak.
- b) Jabetza Erregistroan edo Ondasun Higigarrien Erregistroan inskribatu beharreko edozein ondasun edo eskubideri loturiko dokumentuak edo egintzak.
- c) Ohiko bizilekua hipoteka-barrutian duten edo izan duten zordunen dokumentuak edo egintzak, eta, «*mortis causa*» eskurapenetan, kausatzailearenak.

Dokumentuak aurkezteko, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera bulego eskudun direnetera jo beharko da, edota foru-ogasuneko likidazio-bulego zentralera.

10. Bestalde, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuaren 29.2. artikulua arabera, likidazio-bulegoei dagokie zergen kudeaketa eta likidazioa egiteko eskumena, honakoei dagokienez:

- a) Kasuan kasuko hipoteka-barrutian emandako edo izenpetutako dokumentuak edo egintzak.
- b) Kasuan kasuko hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoaren titularraren kargura dauden erregistroetan inskribatu beharreko edozein ondasun edo eskubideri loturiko dokumentuak edo egintzak.
- c) Zerga-egoitza hipoteka-barrutian duen subjektu pasibo ororen dokumentuak edo egintzak.

Dokumentuak aurkezteko, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera bulego eskudun direnetera jo beharko da, edota Ogasun eta Finantza Sailera.

11. Aipatutako ahalak gauzatzeko, zerga-araudiak Ogasun eta Finantza Sailaren administrazio-egituran txertatu ditu likidazio-bulegoak, zuzenean Ogasun eta Finantzarako foru-ahaldunaren mende dauden zerga-kudeaketako organo gisa¹³.

12. Likidazio-bulegoen bitartez gauzatutako ahal horiek zerga-arloko botere publikoari erabat lotuta daude, eta, ondorioz, merkatutik kanpo.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren arabera (SPKLTB), debekatuta dago botere publikoen berezko agintea gauzatu beharra dagoen zerbitzuak zeharkako kudeaketaren bitartez ematea; esaterako, zerbitzu-publikoa kudeatzeko kontratuak (SPKLTBren 275. art.) eta zerbitzu-kontratuak (SPKLTBren 301. art.)¹⁴. Esan dugunez, zergen kudeaketa- eta likidazio-

¹³ 8/1993 Dekretuaren 3. artikulua arabera, jabetza-erregistratzaileen kargura dauden hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoak, esleitu zaizkien zerga-eskumenei dagokienez, Ogasun eta Finantzarako foru-ahaldunaren mende egongo dira.

¹⁴ Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua (BOE, 276. zk., 2011ko azaroaren 16koa); zehazki, honako hauek aldatu dutena: 17/2012 legeak, abenduaren 27koak, (BOE-A-2012-15651), 4/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, otsailaren 22koak (BOE-A-2013-2030), 8/2013 Legeak, ekainaren 26koak (BOE-A-2013-6938), 8/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 28koak (BOE-A-2013-7063), 10/2013 legeak, uztailaren 24koak (BOE-A-2013-8083), 11/2013



egintzek berekin dakarte agintea gauzatu beharra, eta horren ardura funtzionario publikoei eta Zerga Administrazioaren zerbitzura diharduten langileei bakarrik dagokie. Bestalde, bilketa-egintzen ardura Zerga Administrazioaren organoei dagokie; zehazki, horretarako ahalmena esleitu zaienei¹⁵.

Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak ezarritakoaren arabera, zergak aplikatzeko egintzek eta prozedurek, tartean direla zergen kudeaketak, likidazioak eta borondatezko bilketak, berekin dakarte agintea gauzatu beharra eta, beraz, Zerga Administrazioak ezin ditu zeharka kudeatu¹⁶.

«(.....) **“zergak aplikatzeko jardueretan eta prozeduretan gauza daitezkeen ahalak jarduerotan eta prozedurotan esku hartzen duen zerga-administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioei eta gainerako langileei dagozkie”** (1065/2007 Errege Dekretuaren 61.1 artikulua). Izan ere, aipatutako funtzioak gauzatzeak, (...) **berekin dakar agintea gauzatu beharra** (...).»

Irizpide hori aplikatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak agintea gauzatu behar den zerga-jarduera hauek bereizi ditu¹⁷: ikuskaritza-funtzioan elkarlanean aritzea; geroratze- edo

legeak, uztailaren 26koak (BOE-A-2013-8187), 14/2013 legeak, irailaren 27koak (BOE-A-2013-10074), , 20/2013 legeak, abenduaren 9koak (BOE-A-2013-12888), 25/2013 legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2013-13722), 1/2014 Legegintzako Errege Dekretuak, urtarrilaren 24koak (BOE-A-2014-747), 13/2014 legeak, uztailaren 14koak (BOE-A-2014-7468), 2/2015 legeak, martxoaren 30ekoak (BOE-A-2015-3443), 25/2015 legeak, uztailaren 28koak (BOE-A-2015-8469), 31/2015 legeak, irailaren 9koak (BOE-A-2015-9735), 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 11koak (BOE-A-2015-9801), 40/2015 legeak, urriaren 1ekoak (BOE-A-2015-10566). Testu bateratua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>. Zerbitzu publiko bat kudeatzeko kontratuei dagokienez, 275. artikulua ezartzen duenez, inola ere ezingo da zeharka kudeatutako zerbitzurik eskaini, baldin eta botere publikoek agintea gauzatu behar badute horretarako. Zerbitzu bat kudeatzeko kontratuei dagokienez, 301. artikulua ezartzen duenez, zerbitzu jakin batzuk ezingo dira inola ere kontratu horien xede izan, baldin eta horiek berekin badakarte botere publikoek agintea gauzatu beharra.

¹⁵ 215/2005 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen bilketako Araudia onetsi duena. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 249. zk., 2005eko abenduaren 31koa). 2. artikulua arabera, foru-administrazioaren zergen eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideen bilketaz arduratuko da Ogasun eta Finantza Saila, eginbehar hori esleitua duten organoen bitartez.

¹⁶ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia (Administrazioarekiko Auzien Sala), 519/2015 Epaia, 2015eko abenduaren 14koa. JUR\2016\7043. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia (Administrazioarekiko Auzien Sala), 9/2016 Epaia, 2016ko urtarrilaren 22koa. RJCA\2016\411. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia (Administrazioarekiko Auzien Sala), 260/2016 Epaia, 2016ko ekainaren 15ekoa. UR\2016\203565.

¹⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia (Administrazioarekiko Auzien Sala), 9/2016 Epaia, urtarrilaren 22koa. RJCA\2016\411.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia (Administrazioarekiko Auzien Sala), 260/2016 Epaia, 2016ko ekainaren 15ekoa. JUR\2016\203565.



zaticatze-espeditenteak izapidetzea likidazioetan; zergadunentzako laguntza eta informazioa; autolikidatutako zorra eta guztizko zorra bat datozela egiaztatzea; egiaztapen- eta ikuskapen-jardueren ondoriozko likidazio-proposamenak; ikuskapen-jardueretan hautemandako zerga-arloko arau-hausteei loturiko espeditenteak izapidetzea; ikuskapen-lanetan laguntzea; zerga-ikuskapenean eta -kudeaketan laguntzea eta zehapen-espeditenteak izapidetzea.

Bestalde, Auzitegi Gorenak adierazi izan duenez, zergak biltzeko funtzioetako batzuk –zehazki, borondatezko epearen eta epe exekutiboaren barneko kudeaketa zuzen bidezko udal-bilketa– ezin dira zeharka kudeatu¹⁸.

13. Azaldutakoaren arabera, eta likidazio-bulegoen zerga-ahalmenak merkatutik kanpo daudenez –izan ere, Zerga Administrazioari bakarrik dagokio horiek eskaintzea funtzionario publikoen bitartez (aztertutako kasuan, likidazio-bulegoen titular diren jabetza-erregistratzaileak)–, ezin daiteke oharririk batere egin lehiaren ikuspegitik, jarduteko baldintzak ezartzera mugatzen diren lankidetzaren hitzarmeneko baldintza hauei dagokienez:

- Hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoak: Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Likidazioa (9. klausula); Hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoen funtzioak (10. klausula); Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak (12. klausula); Informatika, langileak eta lokalak (13. klausula); Jarduera- eta kalitate-irizpideak (14. klausula); Konpentsazio ekonomikoa (15. klausula); Erantzukizun-araubidea (16. klausula); Likidazio-bulegoen koordinatzailea (17. klausula); Jarraipen Batzordea (18. klausula); Indarraldia eta Xedapen iragankorrak (19. klausula).

14. Foru-ogasunaren organo espezifikoei bakarrik dagokie zerbitzu horiek eskaintzeko ardura, eta ez dituzte likidazio-bulegoak aintzat hartuko. Horrela jokatu du foru-ogasunak berak gainerako tributuetan, baita Arabako eta Gipuzkoako foru-ogasunek tributu guztietan ere. Alabaina, hautu hori egin ala ez lurralde historikoetako erakundeen esku dago, beren burua antolatzeko ahalmena dela medio¹⁹. Bizkaiko Foru Ogasunak, helburu horretarako,

¹⁸ Auzitegi Gorenaren Epaia (Administrazioarekiko Auzietarako Sala), 1990eko urtarrilaren 26koa. ECLI: ES:TS:1990:15708.

¹⁹ 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herrirako Autonomia Estatutuarena. (BOE, 306. zk., 1979ko abenduaren 22koa). 37.3 artikulua arabera, lurralde historikoek eskumen eksklusiboa dute beren erakundeen antolaketaren, araubidearen eta funtzionamenduaren gainean.

12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskadiko Ekonomia-ituna onartzen duena. (BOE, 124. zk., 2002ko maiatzaren 24koa). Hemen eskura: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2002-9969>. 1. artikulua arabera, lurralde historikoetako erakunde eskumendunek lurralde bakoitzeko zerga-erregimenari eutsi eta hori ezarri eta erregulatu ahalko dute. Lurralde historikoetako tributu-sistema osatzen duten tributuak ordainaraztea, kudeatzea, kitatzea, ikuskatzea, berraztertzea eta biltzea foru-aldundiei dagokie, nori bereak.



likidazio-bulegoak aintzat hartzea erabaki du, 8/1993 Foru Dekretuaren zioen azalpenean neurri horren zergatia arrazoituta:

«(...) eraginkorrak izan dira zerga-harremanak deszentralizatzeko eta sinplifikatzeko tresnak. Tradizio handia dago horien inguruan, hala araubide komuneko lurraldean –1829an Hipoteka Zuzenbidea ezarri zen–, nola lurralde historikoan bertan, esaterako, araubide itunduaren lehen aroan –zehazki, 1927ko apirilaren 8ko Errege Agindu bat–, eta, ondorioz, zerga-zerbitzuen organigraman errotuta daude. Beraz, Ekonomia-itunaren 26. eta 27. artikuluek foru-erakundeei esleitzen dizkieten eskumenak baliatzea bidezkoa da, eta foru-dekretu hau agintzen da, jabetza-erregistratzaileen kargura dauden hipoteka-barrutiko likidazio-bulegoen eskumenen gaineko araubide bateratua erkidego-mailan ezartzea xede duena».

15. Arrazoi horiek berak direla medio, ezin daiteke oharrik batere egin lehiaren ikuspegitik, geroko kudeaketa-gomendio bati –likidazio-bulegoek lege ez dagozkion zerga-kudeaketako zerbitzuak eskaintzea– dagozkion hitzarmeneko klausulei dagokienez. Esaterako, hauen inguruan: identifikazio fiskaleko zenbakia Merkataritza Erregistroaren bitartez esleitzeko prozedura (4. klausula) eta Zerga Administrazioan bide telematikoz aurkeztutako beste espediente batzuen kudeaketa, likidazio-bulego bakoitzari dagokion Jabetza Erregistroan inskribatzekoak diren ondasunei edo eskubideei badagozkie (11. klausula).

Balitzko gomendio horren bidez, likidazio-bulegoek zerbitzu jakin batzuk eskainiko dituzte, baina horrek eragina izango du lizitazio bidez merkatuaren esku laga ezin daitezkeen zerga-kudeaketaren gaineko eskumen publikoak gauzatzeko garaian.

2. Erregistratzaileen lege-betebeharra, foru-ogasunari lankidetzeta eta informazioa eskaintzeko

16. Dagozkien funtzio publikoak gauzatzeko, erregistratzaileak derrigorrean arituko dira elkarlanean, besteak beste, administrazio publikoekin²⁰. Zehazki, zerga-arloan, foru-ogasunari zerga-eragina izan dezaketen datu, txosten eta aurrekari guztiak jakinarazteko betekizun espezifikoak dute²¹. Gainera, foru-

²⁰ Hipoteka Legearen 222.7 artikulua arabera, erregistratzaileek, dagozkien funtzio publikoak gauzatzeko, elkarri laguntzea eta jurisdikzio-organoeekin, administrazio publikoekin eta notarioekin lankidetzan aritzea izango dute betekizun.

²¹ 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzkoa. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 49. zk., 2015eko martxoaren 11koa). Foru Arauaren 93.1 artikulua arabera, agintariak, edozein dela ere beren izaera, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta lurralde historikoetako eta toki-erakundeetako organoen titularrak; erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak; ganberak eta korporazioak, elkargoak eta elkarte profesionalak; gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako erakunde publikoak (Gizarte Segurantzakudeatzen dutenak barne), eta, oro har, funtzio publikoetan lan egiten dutenak, zerga-eragina izan dezaketen behar beste datu, txosten eta aurrekari eman beharko dizkiote



ogasuneko funtzionarioei eta gainerako langileei laguntza, partaidetza eta sorospena eman beharko diete, beren eskumenak balia ditzaten²².

Jabetza Erregistroetan egunez egun jasotzen diren egintzek eragina izan dezakete zerga-administrazioaren zerga-kudeaketan, -ikuskaritzan eta -bilketan. Bestalde, foru-ogasunak tributuoak aplikatzeko jarduketek sarbidea izan behar dute erregistroetan, bidezko eskubide publikoak bermatuta eta interes orokorra babestuta egon daitezzen.

Beharrezkoa den informazio-transmisioa egituratu eta arintzeko, aldeek horren gaineko baldintzak adostu dituzte. Erregistratzaileek bakarrik eskaini ahal izango dituzte zerbitzu horiek, eta foru-ogasunari elkarlana eta informazioa eskaintzeko betebeharra dute. Horrenbestez, hasiera batean, horrek ez du eraginik merkatuko lehian. Dena dela, zehatzago aztertuko ditugu klausulok:

- **2. klausula. Erregistroko datuen informazioa ematea foru-ogasunari:** Erregistroko informazioaren eskabideak bideratzeko prozedura ezarri da, Bizkaiko Foru Ogasunak Jabetza edo Merkataritzako Erregistro batean halakorik aurkeztu behar duenerako. Halaber, foru-ogasunari inskribatutako merkataritza-sozietateen eta erakundeen erregistro-informazioa zenbatean behin bidali behar zaion ezartzen du. Bizkaiko erregistroek eskainitako informazioak % 100eko hobaria jasoko du. Erregistratzaileek foru-ogasunari informazioa emateko bidea zehazten da puntu horretan.
- **3. klausula. Erregistratzaileak lankidetzan aritzea Bizkaiko Foru Ogasunarekin zerga-kudeaketan:** Lankidetzan honetan datza: foru-ogasunean likidazioa egin behar izan arren likidatu ez diren dokumentuak inskribatzea ukatzea eta ukapen hori Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea ezarritako epeen barruan. Era berean, onura fiskalen bat eskuratzeari buruzko oharrik duten ondasunen geroko eskualdatzeak jakinaraziko dizkio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari. Azkenik, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan onura fiskalen bat aitortu zaien

Zerga Administrazioari, horrek izaera orokorreko xedapenen edo errekerimendu zehatzen bidez hala eskatuta, eta hari zein bertako langileei laguntza, partaidetza, sorospena eta babesak eskaini beharko diete, beren eskumenak balia ditzaten.

²² Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuoak kudeatzeko erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuko 4. artikulua araberak, Zergen Foru Arau Orokorraren 93. artikuluan aipatzen diren agintariak eta erakundeak, eta, oro har, funtzio publikoetan lan egiten dutenak, Zerga Administrazioako organoetako funtzionarioei eta gainerako langileei laguntza, partaidetza, sorospena eta babesak eskaini beharko diete, beren eskumenak balia ditzaten. 112/2009 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketako Araudia onetsi duena. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 144. zk., 2009ko uztailaren 30ekoa).



dokumentuak inskribatzean –horien jatorria zalantzazkoa bada–, edo likidazio egokiak zalantzak sortzen dituen dokumentuak inskribatzean, erregistratzaileek Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren esku utziko dute auzia. Erregistratzaileek zerga-administrazioarekin lankidetzan aritu beharra zehazten da puntu horretan.

- **5. klausula. Merkataritzako Erregistroari entitateen aurkibidean behin-behineko baja eta berriz alta emateko erabakiak jakinarazteko prozedura:** Prozedura telematiko bakarra ezarri da Merkataritzako Erregistroari oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren arabera emandako behin-behineko baja-erabakiak jakinarazteko; eragindako entitatearen orrian, erregistroak orri ertzeko ohar bat txertatuko du²³. Erregistratzaileek foru-ogasunarekin lankidetzan aritu beharra zehazten da puntu horretan.
- **6. klausula. Bizkaiko Merkataritzako Erregistroak Bizkaibairen ondoreetarako ziurtagiriak ematea²⁴:** Erregistro-ziurtagiri horien bitartez, sozietate-organoen eta borondatezko ordezkarien merkataritza-zilegatasuna ziurtatzen da, foru-ogasunarekin telematikoki jarduteko sinadura digitalaren bidez. Merkataritzako Erregistroa, ziurtagiri horiek emanda, foru-ogasunarekin lankidetzan ari da zerga-kudeaketan, pertsona juridikoek bide telematikoz egin ahal izan dezaten zerga-kudeaketa.
- **7. klausula. Foru-ogasunak egindako bahiketak eta idazkunak eragin ditzaketen beste elementu batzuk Jabetza eta Merkataritza Erregistroei bide telematikoz jakinarazteko prozedura:** Ogasun publikoaren aldeko ondasunen eta eskubideen bahiketa berekin dakarten tributu-egintzak erregistroan bizkor sartzeko eta dagokion erregistro-orrian bahiketa-idazkun prebentiboa egiteko. Erregistratzaileek foru-ogasunarekin lankidetzan aritu beharra zehazten da puntu horretan, horren bidezko eskubideak bermatuta egon daitezen.
- **8. klausula. Erregistratzaileek irizpenak eta txostenak egitea Foru Ogasunarentzat:** Erregistratzaileak behartuta daude Bizkaiko Foru Ogasunak higiezin, merkataritzaren eta erregistroen arloko zuzenbideez eta erregistratzaileen eskumen- eta ezagutza-aroko gaiez

²³ BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Sozietate bat entitateen aurkibidetik ateratzea. Hemen eskura: http://www.bizkaia.eus/ogasuna/faq/faq_detalle.asp?idregistro=900002734&ldioma=EU&Tem_Codigo=4257&IdEtiquetaBuscar=74&pant=listado.

²⁴ Bizkai Bai zerbitzua da ingurune seguruko transmisio telematikorako plataforma, eta horren bitartez gauzatzen dira zerga-harremanak foru-ogasunarekin (bide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz).



eska ditzakeen txostenak eta irizpenak kosturik gabe ematera. Erregistratzaileak, horretarako, erregistro-funtzio publikotik eta likidazio-bulegoen funtzioetatik kanpo jardungo dira. Txostena edo irizpena emango dute arloko profesional diren aldetik eta lankidetzaz hitzarmena eragin duten gaiez bestelakoez. Bizkaiko Foru Ogasunak Lehiaren Euskal Agintaritzari emandako informazioaren arabera, 2007 eta 2017 urteen artean, Bizkaiko Foru Aldundiak ez die txostenik edo irizpenik batere eskatu Bizkaiko hipoteka-barrutiko jabetza eta merkataritzako erregistratzaileei.

Nolanahi ere, aipatutako gaiei buruzko txostenak edo irizpenak ematea arlo juridikoan zehaztutako zerbitzu-kontratu baten mende legoke. Indarrean den Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren arabera, zerbitzu juridikoak II. Eranskinen 21. kategoriako zerbitzu-kontratuak dira (10. artikulua). Oro har, publizitatea eta lehia bermatzen dituzten prozeduren bitartez esleitu beharko lirateke, botere esleitzailerik batek egin nahi baditu. Dena den, horiek ez dute Europako publizitaterik behar.

2014/24 Zuzentarauan, zerbitzu juridiko horietako batzuk aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira (10 d) artikuluko i) eta ii) atalak); benetakoa edo oso posiblea den auzi batekin oso lotuta dauden aholkularitza-zerbitzuak eta epaiketako defentsa-zerbitzuak izango lirateke. Gainerako zerbitzu juridikoek 74. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozedura sinplifikatua bete behar dute, eta hark Europako publizitatea gaineratzen du.

III. Ondorioak.

17. Foru-ogasunari dagokio zerga itunduak aplikatzeko eskumen eskusiboa Bizkaiko lurralde historikoan, eta zergen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskaritza egiteko ahalmen publikoak gauzatzen ditu eskumen hori dela medio. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kasuan, zergen kudeaketa, likidazioa eta borondatezko epearen barneko bilketa egiteko ahalak organo espezifikoen eta jabetza-erregistratzaile bat buru duten likidazio-bulegoen bitartez gauzatzen dira.

18. Tributuak aplikatzeko egintzek eta prozedurek berekin dakarte foru-ogasunak funtzionario publikoen bitartez agintea gauzatu beharra eta, ondorioz, ezin dituzte merkaturako enpresek eskaini, SPKLTBk berariaz salbuesten baitu horien zeharkako kudeaketa.



19. Likidazio-bulegoak administrazioaren organoak dira eta funtzionario publiko bat da horien buru: kasuko jabetza-erregistratzailea. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudiak ahalmen jakin batzuk esleitu dizkie oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergen kudeaketa, likidazioa eta borondatezko bilketa egiteko, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru-ahaldunaren eskumenaren mende jarri ditu.

20. Lankidetzeta-hitzarmenak, likidazio-bulegoei eragiten dien aldean, zerga-araudiak esleitutako ahalmen publikoak gauzatzeko baldintzak ezartzen ditu, eta baldintzok ezin dute eraginik izan lehian, ezin baitira merkatuan eskaini.

21. Lankidetzeta-hitzarmena, erregistroen eta foru-ogasunaren arteko lankidetzari eta informazio-trukeari eragiten dion aldean, prozedura-baldintzak, baldintza materialak eta denbora-prozedurak ezartzera mugatzen da, horien arabera gauza daitezten lankidetzeta eta informazio-horniketa, eta klausula horietatik ezin ondoriozta daiteke merkatuko lehian eragiten denik.

22. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskariz txostenak edo irizpenak emateak –lankidetzeta-hitzarmenean dago jasota– berarekin leharkeen arren zerbitzu-kontratu bat, publizitate- eta lehia-baldintzen mende legokeena, Bizkaiko Foru Aldundiak Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean egiaztatu du ez duela ahalmen hori baliatu 2007tik 2017ra bitartean; alegia, ez diela txostenik edo irizpenik eskatu erregistratzaileei. Ondorioz, alderdi horrek ez du eraginik merkatuko lehian.